



EUSKAL HERRIKO HERRI MUSIKA ETA DANTZEKIN ITALIAN



La Borghata che Danza jaialdian parte hartu duen Euskal Herriko ordezkaritza.

Joan den maiatzaren 21 eta 25 artean, Oiartzungo HM Eskolako ikasleak, "Hernani" musika eskolako fanfarrak, txistulariak eta albokariak, eta Leinua taldeko dantzariak Italiako Bellaria-Igea Marina herrian izan ziren (Romagna eskualdea) 23. *La Borghata che Danza* jaialdian parte hartzen.

Jaialdi hau herri hartako L'Uva Grisa elkarteak antolatzen du urtero, ahozkotasuna eta herri musikaren inguruan, eta aurtengoan euskal musika eta dantza hartu dituzte gai nagusitzat.

Horretarako, Oiartzungo Soinuenea Fundazioa eta Euskal Kultur Erakundeak (E.K.E.) bideratuta, hiru talde joan ziren, elkar hartuta, Adriatikoko herri hartara: "Hernani" musika eskolako 22 lagun, Oiartzungo HM eskolako 5 eta Hiriburu-Mugerre-Milafrangako "Leinua" dantza taldeko 15.

Italiako eskualde ezberdinetako

beste hainbat musikari eta dantzari ere aritu ziren jaialdian ere. Tartean ziren Romagna bertatik, Emiliatik, nahiz Pugliatik etorritakoak.

Jaialdia maiatzaren 22tik 24ra ospatu zen, eta egitarau hau gauzatu zuten:

-Maiatzak 22 (ostirala)

·21:00 Euskal musika eta dantza tradizionalen aurkezpen eta erakustaldia.

-Maiatzak 23 (larunbata)

·16:00 Dantza tailerra: Italia eta Euskal Herriko dantzen ikastaroa.

·20:00-23:30 Dantzaldia eta kontzertua.

·00:00 Gauerdiko kontzertua – Euskal Herriko ezkontza eta santesketako usadio zaharrak.

-Maiatzak 24 (igandea)

·11:00-13:00 Mahai inguru hezitzaile eta musikariekin: Herri musika eta dantza eskolan.

·12:00 Kalea girotzea txistulari eta albokariekin.

·17:00 Bigarren dantza tailerra.

·20:00-23:30 Dantzaldia eta kontzertua.

-Jaialdi osoan barrena: euskal soinu tresnen erakusketa

Lapurdikoko dantzariekin batera lan egiteak, Aturri inguruko herri haietako eta Gipuzkoako oiartzuar eta hernaniarren arteko harreman ederra jorrazteko parada ezin hobea eskaini diela azpimarratu dute arduradunek. Horrekin batera, Italiako paraje haietan gure kulturaren ordezkaritza izateko suposatuta duen ohoreaz eta italiarrek egin dieten harrera ezin hobez gainera, bertako musikari eta dantzariekin jardun ahal izatea oso esperientzia aberats eta interesgarria izan dela esan dute.

Eguraldiak asko lagundu ez bazien ere, oso jaialdi arrakastatsua izan zen, jende asko inguratu baitzen bertan parte hartzera: dantzan, elkarriketan nahiz entzule gisa. Eta pozik handiena, hain ongi artatu zituzten bellariarrak ere gustora geratu zirelako sententzia izan zen.

KONTZERTUAK SOINUENEAN

UDAKO KONTZERTUA

2015eko uztailaren 4an - 19:00etan Done Eztebe enparantzan

YANN PELLIET & KONOCHAN AN HABASK

Xirolarruak eta bonbarda



YANN PELLIET

Yann zortzi urte zituela hasi zen xirolarrua ikasten. Hasieran, bagad (bretainiako formazio herrikoa) baten barruan ikasi zuen eta ondoren Bretainian xirolarruarekin maisua den Jakez Pincet ondoan zuela lehendik ikasitakoa hobetzen aritu zen.

Berekin, eskoziar xirolarrua jotzeko arte eta maisutasunean sakondu zuen soinu-tresnaren errepertorio zaharrena lantzearekin batera: Piobaireachd (xirolarruaren musika klasiko handia) musika. Horren ondoren, Bretainian musika bakarlarien

lehiaketetan hainbat sari eskuratu zituen.

Hemezortzi urterekin Bretainiako talde esanguratsuenetako baten zuzendaritza hartu zuen: Kevrenn Brest Sant Mark bagada.

Bost urtetik hona, bere denbora librea gaur egun bere bizilekua den Concarneau herriko bagadean xirolarrua jotzen erakusteari eskaintzen dio.

Lanbidez, Yann Ti Ar Sonerien (Soinularien etxea) zeltar soinu-tresnen salmentan espezializatutako dendaren arduraduna da, bretainiar musikan espezializatuta dagoen Paker Prod ekoiztetxea zuzentzearekin batera.

KONOCHAN AN HABASK

Bonbarda ikasten sei urterekin hasi zen Quimper-eko Musika Eskola Nazionalean.


Nerabezaroan amaren aldeko aitona binioua jotzen ikusiko du bere burua, aitona ere soinularia zen. Konogan soinu-tresnara egokitu zen bere kontura saiatuz eta ikasiaz. Piskanaka 1997 urtean zenbait lagunekin sortu zuen Startijenn taldean erabiltzen sartu zuen.

Urte batzuk geroago, 2002an, Karaezeko musika eskolan irlandako xirolarrua den uilleann-pipes jotzen ikasi zuen Patrick Molard irakaslea-

rekin, herri bereko Diwan (bretoieraz irakasten duten ikastetxeak) Lizeoan eskolaratuta zegoela baliatuz.

Aldi berean, Bro Kernev (Bretainiako hego-mendebaldeko lurraldea) hegoaldeko musikan espezializatu zen. Aipamen ugari jaso ditu bere musikalitate eta birtuosismoa dela-eta.

Musikari profesional maila lortu zuen 2006an eta hurrengo urtean musikako irakaslearen Estatuko Diploma eskuratu zuen eta hainbat egonaldi eman zituen.



Bere lehenengo diskoa 2012an argitaratu zuen. *D'ar pevarlamm*, iraupen luzeko proiektu baten emaitza eta bere konposizio lanean oinarrituta, bakarlari moduan argitaratu zuen. Disko honetan Konogan-en bretoi eta irlandar musikatik edaten duen unibertso artistikoa agerian geratzen da.

Konogan gaur egun Pevarlamm taldean aritzen da, eta horretaz gain, instrumentu anitz jotzen dituen izanik musika proiektu ugarietan parte hartzeri deitzen dute.

ETA GOIZEAN

DANTZA TAILERRA

Bretainiako Dantza Herrikoiak

Lekua: Done Eztebe plaza
20180 Oiartzun

Eguna: 2015-07-04

Ordua: 12:00

Arratsaldeko kontzertuaren aurretik, goizean Bretainiatik etorritako Yann Pellet eta Konogan an Habask-ek bere herriko dantzei buruzko tailer bat emango dute.

Adin guztietako jendea gonbidatua dago eta parte hartzea irekia da.

AIKO TALDEA



AIKO musika eta dantza maisu, dantzari eta dantzazaleen talde bat da, musika eta dantza tradizionalaren mundua ezagutarazi, ulertu, ikertu, irakatsi, sustatu, bultzatu, garatu, herrikoitu, gizarteratu eta bereganatzeko asmoarekin sortua. Dantzari-dantzazaleak bere proiektuaren parte dira, inportanteena agian.

Musika eta dantzaren arteko tradiziozko harremana berreskuratu nahi dute: dantza eta musika bat dira beraientzat. Horrez gain, tradiziozko antzinako dantzakera eta gorpuzkera zabaltzen dituzte: lur gainekoa, berezkoa, eroso, ekologikoa, ergonomikoa eta demokratikoa. Hau guztia garatzeko, dantzaren transmisiorako baliabide eta irakasbide egokiak sortzen dituzte, ongi pasatzen ikasteko eta dantzatzen ongi pasatzeko.

Tradiziozko dantza

Aikoren esanetan, badago dantzatzeko beste modu bat. Doinu bat en-

tzutean berez oinak mugitzen ditugunean, kulunka egiten dugunean, edo atzamarren puntekin erritmoa markatzen dugunean, musikaren aurrean gure gorpuzak duen erantzun psikomotor naturalari bide ematen diogu, eta, modu berean, dantza tradizionalari.

Musikak eta mugimenduak bat egiten dute tradiziozko dantzakeran, elkarturik, sistema bakar bat osatuz, elkar elikatuz eta aberastuz, eta, alde horretatik, oinarrizkoa da musikari eta dantzarien arteko harremana.

Tradiziozko dantzakeran lur gainean dantzatzen da, berezko modu ergonomikoan, dantzari bakoitzaren mugak eta gorpuzkera kontuan harturik, eta horrexegatik, tradiziozko dantzak guztion partehartzea errazten du, giza harremanak erraztuz eta areagotuz.

AIKOk dantzatzeko era tradizional eta naturala zabaltzeko nahi du, eta horrekin batera, dantzarako aukera eta gune berriak sortu nahi ditu; ikas-

teko bide atsegin, argi eta erraz bat jarri nahi du guztion eskura, dugun bizimoduari egokitua...

Dantzarako musika egitea gogoko dutelako, dantzatzea maite dutelako dihardute musika jotzen, dantzan eta irakasten. Eta beraientzat musika eta dantza uztarturik doaz berez: elkarren osagarri eta lagungarri dira, eta horregatik, zuzeneko musikak lehenetsia du beraien ekitaldietan.

Era natural, lasai eta dibertigarrian musika jotzen eta dantzatzen saiatzen dira, dudarik gabe dantzatzeko beste modu bat dagoelako.

Dantzaldi ibiltaria

Tradizioan erroturiko dantzaren loraldi berri baten aurrean gaudela esan daiteke; gero eta dantzazale gehiagok parte hartzen du erromeri, ikastaro, tailer eta dantzaldietan. Gero eta gehiagok sinesten dute dantza aisialdirako aukera ezin hobea dela gaur egungo gure gizartean, eta gero eta erakunde eta elkarte gehiagok dihardute horretan lanean.

AIKO ekin eta jarrai dabil hainbat ekimenetan: dantzaren inguruko jakinduri eta bizipenen transmisiorako gune berriak sortzen, eta bereziki dantza egiteko sorturiko musikarekin batera, dantza bizitzeko aukerak sortuz.

Azken batean, tradiziozko dantzaren mundua XXI. mendeko gure inguruko hiritarrei zabaltzearen ari dira lanean, eta horretarako, proposamen interesgarri, dinamiko eta dibertigarri bat dugu lanabes, inguru erakargarri batean gauzatua, eta gaur egungo bizimoduarekin bat datorrena: dantzaldi ibiltaria.

Udako kontzertua Soinuenea - Herri Musikaren Txokoak antolatuta

AFARIA KONTZERTUAREN ONDOREN

Afaria Oartzungo Udaletxearen azpiko frontoian izango da. Bertan musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko aukera izango da. Afarirako lekua izan nahi duenak Amazkar tabernan txartela erosi beharko du.

Afariaren prezioa: 18 euro



kontzertu honen laguntzaileak:

AUZOKALTE
ERGOIENGO AUZO
ELKARTEA

OIARTZUNGO HM ESKOLA AURRERA

Lehengo ekainaren 7an, igandez, Oiartzungo HM Eskolak ikasturtearen bukaera kontzertu bat emanaz ospatu zuen. Eguerdiko hamabi terdietan Elizalde herri ikastetxean hasi zen kontzertuaren aurretik herriko kaleak alaitzen ibili ziren xiolarru, dultzaina eta era ezberdinetako perkusio tresnekin jotako kalejirekin.

Kontzertuaren ondoren ikasle eta irakasleak Ibergain kirol eta kultur elkartera joan ziren elkarrekin bazkaltzera. Han ere, bazkaldu ondoren musikak eta dantzak izan zuten beren tartea.

Ikasturte bat bukatu da eta bestea bidean da. Oiartzungo HM Eskolan alboka, biolina, dultzaina, perkusioa, txalaparta edo xiolarrua jotzen ikasteko aukera dago eta matrikulatzeko epea ekainaren 26an bukatu bada ere, interesa duenak Soinuenera deitu eta informazioa eskal dezake.



Pandero eta danborrak jotzeraekin batera kantatzen. SNN

UDAKO HERRI MUSIKA EKINTZAK

Ekainetik urteko sasoi berrira egokitutako ekitaldi sail berria prestatuta dago. Juxtu udan sartu aurretik Ergoien auzoko festak izan dira Oiartzunen eta bertan ekainaren 13ko familientzako erromeria antolatzeaz gain, Oiartzungo HM Eskolako dultzaina taldekoak kalejiran aritu ziren.

Hurrengo ekintzak Oiartzungo Xanisteban festetan izango dira. Batetik, adin ezberdinetara egokitutako erromeriak izango dira: abuztuaren 3 eta 5ean 19:30etan Dantza-bilera eta abuztuaren 4an 17:30etan Erromeria Familiar. Dantzaldi hauek Done Eztebe enparantzan izango dira. Bestetik, festetan talde ezberdinen kalejirak eta dultzaineroen urteroko topaketa izango dira: abuztuaren 4an eguerdiko 12:00tan Oiartzungo eta Hernaniko albokariaren kalejira eta arratsaldeko 18:00tan Donostialdeko eta Oarsoaldeko Dultzaineroen topaketa, abuztuaren 5ean 12:00tan Oiartzungo HM Eskolako biolin jotzaileen kalejira eta abuztuaren 6an 12:00tan Oiartzungo HM Eskolako xiolarru eta dultzaina taldeen kalejira.



Dultzaina taldea Ergoingo festetan kaleak alaitzen. SNN

JARDUNALDIETAN DANTZA PLAZAN

Udazkenean izango diren Herri Musika Jardunaldiak aurtin jorratuko duten gaia Dantza Plaza da. Urtetan plazako dantza herrikoia gutxituta egon bada ere, azkenengo urteetan berrindartze handia izan du eta horren inguruko ausnarketa egiteko aukera izango da azaroaren 14 eta 15eko asteburuan Soinuenean.

Egitarruaaren aurrerapen moduan larunbatean mintegia eta mahai ingurua izango direla esan behar dugu. Euskal Herrian fenomeno honen goraldian zerikusi zuzena izan dutenen testigantza izango dugu eta kanpoko erreferentzia moduan Mallorkako kasua azalduko digun Antònia Oliver Martorell izango da gure artean. Larunbatean bertan *Es revellers* taldearen emanaldia izango dugu.

Igandean alde praktikoa goizean izango den dantza tailer batekin eta eguerdiko plazako dantzaldiarekin osatuko da..



Dantzaldia Oiartzungo Kontsejupean Hernaniko fanfarearekin. SNN

BISITARI KOPURUA

Azken hiru hilabeteetan: bisitari kopurua: 1483
Antolatutako taldeak: 46

Bisitari kopurua ekainera arte: 48271

WEB ORRIRA BISITAK

Azken hiru hilabeteetan: 16164

Soinuenea - Herri Musikaren Txokoa

Tornola kalea, 6 - 20180 OIARTZUN

Tel / Fax 0034 943 493 578

soinuenea@soinuenea.org

www.soinuenea.org



OIARTZUNGO
UDALA